

Enpresa esleipendunak gure kale eta auzoetan egiten duen garbiketa eskasaren ondorioz, kexa ugari dagoela jakina da. Gainera, garbiketa lanak egiten dituzten langileak ere kexu direla jakin dugu. Hori ikusita, eta esleipen pribatu horien berritzea hurbil dagoela kontuan hartuta, **ORAIN AMURRIO**kook zerbitzu horren udalekotzea eskatu nahi dugu, baita udal eraikin guztietako garbiketa lanenak ere, gaur egun 10 kontratu eta enpresa ezberdinekin egiten direnak.

Krisialdi ekonomikoak Zerbitzu Publikoen kudeaketa pribatuaren efizientzia handia erakarri du, kudeaketa publikoaren kalterako. Zerbitzu Publikoen kudeaketaren helburua udalerrriaren zein herritarren interes orokorra asetzea da, eta interes orokor horrek efizientzia eta iraunkortasun ekonomikoa izan behar ditu oinarri, baita giza eta ingurumen iraunkortasuna ere.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak udal eskumen diren Zerbitzu Publikoak ahalik eta modu eraginkor eta efizienteenean kudeatzea eskatzen du, bai zuzeneko, bai zeharkako kudeaketaren bidez. Halaber, zerbitzuak emateko kontratuen adjudikazioari buruzko Europako Zuzentarauak argi eta garbi azaltzen du agintaritzak bakoitzak (kasu honetan tokiko agintaritzak) zerbitzuak emateko era erabakitzeak askatasuna duela, betiere kalitate, segurtasun eta irisgarritasun ekonomiko handia eskainiz, besteak beste. Bestalde, Europako Estrategia 2020n jasota dagoenez, efizientzia neurtzeko "giza errentagarritasuna" bere osotasunean neurtu behar da. Gure kale eta gune publikoetako garbiketari buruzko kexak ugariak dira eta arazo horiek udalerrriak enpresa esleipendunak (etekina helburu nagusi duena) baino hobeto konponduko dituelako uste sendoa dugu.

Udalekotzeko prozedura ez da ez erraza, ez samurra; izan ere, egiteko prozedura administratiboa zaila da eta ekonomia zein lan ondorioak dakartza, baina burutu ahal izateko baliabideak jartzea Udalaren ardura delakoan gaude.

Bideko zein udal eraikinen garbiketaren kudeaketa kapitalaren %100 udalekoa duen merkataritza-sozietate baten bidez egiteko aukera baloratzea dugu, hau da, Amurrio Bidean Elkartearen bidez.

Horregatik guztiagatik, **ORAIN AMURRIO**kook **MOZIO** bat aurkeztu dugu Amurrioko Udalari bi kontu eskatzeko; batetik, Udaleko Lege eta Ekonomia Zerbitzuei eskatzea aipatutako garbiketa zerbitzuak udalekotzeko egokitasun zein bideragarritasunari buruzko txostenak edo memoriak egitea, eta, bestetik, foro berezi bat sortzea txosten horien edukia ez ezik, aipatutako zerbitzuen kudeaketa publikoari dagozkion kontu guztiak ere eztabaidatzeko.

Amurrión, 2021eko Otsailaren 15